

## ERABAKIA, 2016KO OTSAILAREN 8KOA, UPV/EHUko GERENTEARENA, LANPOSTU BAT ZERBITZU BETEKIZUNETAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA.

### EGITEZKO AURREKARIAK

Erabaki honen eranskinean zehazten den lanpostuaren titularra gutxienez urte bateko epean kanpoan egongo dela aurreikusita dagoenez, ordezkatu behar da.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.**-Zerbitzu-betekizuna honako arautegietan zehazten da: Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea, 190/2004, urriaren 13ko Dekretua, Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan-Baldintzak Arautzeko Akordioaren 65,2. artikulua (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua) eta administrazio eta zerbitzuko pertsonaleko funtzionarioaren zerbitzu-betekizunen prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionario Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa, Gobernu Kontseiluak berretsi zuen 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

**Bigarrena.**- Era berean, honako lege hauek aplikatu behar dira: Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuaren 30/1992 Legea (azaroaren 26koa), urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuena; gainerako arau orokorrak eta eurekin bat datozen beste guztiak.

**Hirugarrena:** Gerentziak eskumena dauka erabaki hau emateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiarekin bat etorritik (2013ko otsailaren 13ko EHAAn);

Hori guztia kontuan hartuta, eman dizkidaten eskumenen babesean, honakoa

### ERABAKI DUT

**Bakarra.**- Erabaki honen eranskinean zehazten den lanpostua aldi baterako zerbitzu-betekizunetan betetzeko deialdia iragartzea.

### OINARRIAK

**Lehenengoa:** Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Lehenengo zuzenbideko oinarrian aipatzen den 2014ko uztailaren 1eko akordioa izango da.

Aipatutako Akordioa ikus daiteke UPV/EHUko web-orrian (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

**Bigarrena:** Eskabideak aurkezteko epea, aipatutako web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 5 laneguneko epean amaituko da eta pertsonaleko gerenteordetzara zuzendu beharko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko erregistro orokorrean aurkeztuz edo, era berean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio-Prozedura bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (azaroaren 27ko EAO) 38.4. artikuluan jasotako beste edozein bide erabiliz.

Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroak zehazten dira Euskal Herriko Unibertsitateko 2012ko maiatzaren 16ko erabakian daude jasota (2012ko ekainaren 18ko EHAAn), eta Interneteko helbide honetan: [http://www.ehu.es/erregistroko\\_bulegoak.html](http://www.ehu.es/erregistroko_bulegoak.html)

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusetan kokatutako erregistroen irekiera-ordutegia, astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etarako izango da, goizeko ordutegian eta 15:00etatik 16:30etara arratsaldeko ordutegian. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Sainduko eta Eguberrietako txandetan, ordutegia 9:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da.

**Hirugarrena:** Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

**Laugarrena:** Balioztatu beharreko merezimenduak 2014ko uztailaren 1eko akordioaren 6. artikuluan azaldutakoak izango dira, Artikulu hoentan arautzen diren murrizketak kontutan hartuz.

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

**Bosgarrena:** Eskaearekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2014ko uztailaren 1eko akordioaren 5. artikuluan esandaka salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzinatasunari, Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei eta maila pertsonal finkatuari dagozkion merituenak.

**Seigarrena:** Deialdi honetan parte hartzen dutenek uko egin diezaioke deialdian parte hartzeari behin-behineko puntuazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen den egun arte. Gero, esleipenari uko egiten badiote, AZP funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko akordioaren 4.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

## ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean edo, nahiago bada, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jurisdikzio horretan eskumena duen epaitegian; horretarako hilabete bi egongo dira, erabaki hau 2014ko uztailaren 1eko akordioaren 5.2. artikuluan adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Leioan, 2016ko otsailaren 8an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia  
(2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche



## I. ERANSKINA

Izena: Bulegoko burua  
Erref.: F 1051  
Zenbatgarrena: 33  
Taldea: C/D  
Eskala edo kidegoa: Administraria/Administrari laguntzailea  
Maila: 19  
Lanaldia: Arautua  
Hizkuntza eskakizuna: 2 ; Derrigortasun data: 2002/12/31  
Ikastetxe edo Zerbitzua: BIZKAIKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA  
Campus: BIZKAIA  
Betebehar espezifikoak:

### Lanpostua aldi batez betetzeko baldintzak

1.-Parte-hartzaileak.- (Administrazio eta zerbitzuetako pertsonal funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioaren 4. artikulua, gobernu kontseiluak 2014ko uztailaren 10ean berretsia),(2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

Funtzionarioek hartu ahal izango dute parte jarduneko zerbitzuan badaude edo nahitaezko eszedentzian, seme-alabak zaintzeko eszedentzian, edo beste administrazio publiko batean aritzeko eszedentzian egonik edo borondatezko eszedentzia hartuta egonik lanera itzultzea eskatu badute (eszedentzian eman beharreko gutxieneko denbora behin igarota azken kasuan), honako kasu hauetako batean egon ahal izango direlarik:

- a) Karrerako funtzionarioak dei egindako lanpostuaren talde eta eskala berekoa badira, talde eta eskala bikoitzera irekitako kasuetan izan ezik. Lanpostuotan talde eta eskala bietako funtzionarioek hartu ahal izango dute parte, dei egindako lanpostuak eskatutako betebeharrekoak beteta.
- b) Talde bereko baina beste eskala bateko karrerako funtzionarioak badira.
- c) Karrerako funtzionarioak deitutako lanpostuaren beheragoko hurrengo talde eta eskalakoak badira.

Parte hartuko ahal dute, era berean, UPV/EHUn bitarteko funtzionario izendatutako pertsonak, baldin eta dei egindako lanpostua betetzeko baliatu beharreko lan poltsatik badatoz. Hautatu ahal izango dira zerbitzuen betekizuna karrerako pertsonal funtzionarioari ezin adjudika badakioke.

Deialdian parte hartu ahal izango du dei egindako lanpostuaren betebeharrak betetzen dituen pertsonalak, baldin eta eskariak aurkezteko epea amaitzeko data baino urte bete lehenago zerbitzu betekizunen bidezko izendapenik jaso ez badu dei egindako lanpostuetarako, prozedura honen bidez lortuta.

2.- 2. hizkuntza eskakizuna gaindituta izatea euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria mailekin parekatzeko den Dekretuak adierazten duen legez (Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua) edo, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko den Dekretuan esandakoari jarraituz. (Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua).

3.- Betebehar espezifikoak:

